

Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta
2021. urtea

**Nafarroako biztanleen osasun-egoeraren
autopertzepzioa, 0 puntutik 100erako eskalan,
73,0 puntukoa da 2021ean, eta 75,3koa zen
2017an**

**Ikusi denez, “ongizate orokor txikiko”
sentimendua duten pertsonen ehunekoa % 23tik
% 26,5era igo da 2017tik 2021era bitarte**

**Osasun mentaleko arretaren beharraren
autopertzepzioa % 7,1etik % 9ra igo da 2017tik
2021era bitarte**

2022ko abuztuaren 12a

Emakumeen ustez, gizonek baino babes handiagoa dute beren arazoez hitz egiteko, baina gizonek baino laguntza txikiagoa gaixorik daudenean

GIZARTE ETA BIZI BALDINTZEN INKESTA 2021

Osasuna atal garrantzitsua da Nastatek urtero egiten duen Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkestaren barruan, eta, 2021eko edizioan, toki nabarmena izan du. Txosten honetan, honako hauek islatu nahi dira: lehenik, **nolako pertzepzioa duten** Nafarroako biztanleek haien osasun mentalaren inguruan; bigarrenik, nola aldatu den pertzepzio hori 2017. urtetik gaur arte, COVID-19aren pandemiaren eragina aztertuta, eta, hirugarrenik, zer alderdik duten eragin gehien Nafarroako egoiliarren osasun mentalaren pertzepzioan. Hori beste edizio batzuetako datu batzuekin alderatuz egingo da.




NORBERARENGAN HAUTEMANDAKO OSASUNA

Egunean norberarengan hautemandako osasunaren balorazioa (0-100). Nafarroako biztanleen kasuan, norberarengan hautemandako osasunak okerrera egin du 2020. urtearekin alderatuta. 2021ean, 73,0 puntuko balorazioa izan du 100etik, eta aurreko urtean, berriz, 73,6 puntukoa. Osasunaren batez besteko balorazioa behera egiten ari da 2005. urteaz geroztik. Urte horretan, batez besteko balorazioa 76,0 puntura iritsi zen.

1. GRAFIKOA

Nafarroako biztanleek egunean norberarengan hautemandako osasunaren balorazioa (2001-2021)
(batezbestekoa)



Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat. Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta 2001, 2003, 2005, 2007, 2017, 2020 eta 2021.

Gizonek emakumeek baino batezbesteko handiagoak erregistratu dituzte serie osoan, baina azken urteetan aldeak murriztu egin dira, eta 2017an balorazioen batezbesteko bera lortu zen (75,3 puntukoa).

Adina kontuan hartuta, adinekoen osasunaren balorazioa izan da okerrera. Gainera, gazteenek (15-29 urtekoek) 2001. urtekoen antzeko mailetan jarraitzen badute ere, gainerako adin-taldeek batez besteko balorazio okerragoak izan dituzte 2001. urtearekin alderatuta. Nolanahi ere, 60 urte edo gehiagoko pertsonen batez besteko balorazioek izan dute beherakadarik handiena (70,7 puntuko balorazioa 2001ean, eta 66,0 puntukoa 2021ean).

Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea duten pertsonen atzerritarrek baino batez besteko balio txikiagoak izan dituzte serie osoan, 2020. urtea salbuetsita. Azpimarratu beharra dago atzerritarren taldearen batez besteko adina nabarmen txikiagoa izan dela beti (gutxienez 10 urte txikiagoa urtero; 2021ean, batez besteko adina 39,2 urte izan zen).

Bizilekuaren arabera ere, urteak alderatuta aldeak daudela ikus daiteke. 2001. urtean, Erdialdeak¹ Nafarroa 2000 Zonifikazioko lau taldeetako batez besteko baloraziorik handiena erregistratu zuen. Zehazki, 77,4 puntuko balorazioa izan zuen, eta gainerako hirurak, berriz, 76,0 puntu ingurukoa. 2021ean, berriz, Erdialdeak batez besteko baloraziorik txarrena izan du (73,3

¹ Erdialdeak Nafarroa 2000 Zonifikazioko 'Estellerría' eta 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea' eremuak biltzen ditu.




puntuak); gainerako hiru eremuek balio handiagoak izan dituzte. Azkenik, biztanle kopuru ertaina (2.001-10.000 biztanle) duten udalerrietan lortu dira batez besteko baloraziorik onenak ia serie osoan (2005. eta 2007. urteetan izan ezik, urte horietan 10.000 biztanletik gorako udalerriek erregistratu baitzituzten batez besteko baloraziorik handienak).

Azken urtean norberarengan hautemandako osasunaren balorazioa. 2021ean, azken 12 hilabeteetan 'osasun ona' izan dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa 2020an baino 2,3 portzentaje-puntu handiagoa izan da (% 64,9 eta % 62,6, hurrenez hurren).

Azken 20 urteetako bilakaeran, bere osasuna 'txarra' edo 'erdipurdikoa' dela dioten biztanleen kopuruak gora egitea da joera orokorra. 2001ean, % 26,0k egin zuen balorazio hori, 2012an balorazioa % 28,7ra igo zen, eta pandemiaren aurreko azken erregistroan (2017an), berriz, % 31,9ra. 2021. urtean, beren osasuna 'txarra' edo 'erdipurdikoa' dela adierazi duten biztanleak % 35,0 izan dira.

2. GRAFIKOA

Nafarroako biztanleek norberarengan hautemandako osasunaren balorazioa (2001-2021)²



Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat. Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta 2001, 2003, 2005, 2007, 2012, 2017, 2020 eta 2021.

ONGIZATE OROKORRA ETA OSASUN MENTALA

Nafarroako biztanleek hauteman dute beren osasunak okerrera egin duela 2017. urteaz geroztik. Biztanleen % 26,5k adierazi dute "ongizate orokor txikia" izan dutela inkestaren aurreko bi asteetan (ehuneko hori 2017an baino 3,5 portzentaje-puntu handiagoa izan da). Era berean, 1,9 puntuko igoera izan du azken urtean osasun mentaleko arreta behar izan dutela adierazi duten pertsonen ehunekoak, eta biztanleen % 9,0ra iritsi da 2021ean.

² 2012. urteaz geroztik, norberarengan hautemandako osasunaren 'Txarra' kategoriak 'Txarra' eta 'Oso txarra' erantzun-aukerak biltzen ditu, eta 'Ona' kategoriak, berriz, 'Ona' eta 'Oso ona' aukerak.



Osasun mentala. 2017-2021 konparazioa. 2017an, beren osasun mentalaren baloraziorik onena egin duten pertsonen³ profila honako hau izan da: gazteak (15-29 urtekoak), maila sozioekonomiko 'ertaina-altua' edo 'altua' dutenak, goi-mailako hezkuntza dutenak eta, nagusiki, gizonak. 2021ean, berriz, beren osasun mentalaren baloraziorik onena egin dutenak maila sozioekonomiko 'ertaina-altua' edo 'altua' dutenak, nagusiki gizonak, biztanle kopuru txikiko udalerrietan edo Nafarroako hegoaldean bizi direnak eta 60 urtetik gorakoak izan dira.

1. TAULA

Biztanleriaren ongizate orokorrari buruzko adierazleak, aldagai soziodemografikoen eta sozioekonomikoen arabera, 2017an eta 2021ean (%)

Ehuneko horizontalak	2017		2021	
	"Ongizate orokor txikia" azken bi asteetan	Osasun mentaleko arreta behar duela uste du	"Ongizate orokor txikia" azken bi asteetan	Osasun mentaleko arreta behar duela uste du
Sexua				
Guztira	23,0	7,1	26,5	9,0
Gizona	19,2	5,9	22,2	5,8
Emakumea	26,8	8,3	30,7	12,1
Adina				
15 eta 29 urte bitartean	13,3	8,1	26,8	10,7
30 eta 44 urte bitartean	23,5	6,3	27,7	11,4
45 eta 59 urte bitartean	26,5	7,0	30,1	9,3
60 urte edo gehiago	25,5	7,3	22,4	5,9
Nazionalitatea				
Espainiarra	23,1	7,1	26,5	9,4
Beste bat	22,4	8,0	27,6	**
Udalerriaren tamaina				
2.000 edo gutxiago	20,3	4,5	22,3	6,8
2.001 eta 10.000 bitartean	19,3	6,1	25,9	6,1
10.000 edo gehiago	25,4	8,2	29,0	10,7
Nafarroa 2000 zonifikazioa (taldekatzea)*				
Iparraldea	20,7	4,7	25,3	7,8
Iruña	25,7	8,4	28,8	11,2
Erdialdea	21,2	5,8	26,9	5,5
Hegoaldea	18,5	5,8	21,3	5,7
Maila sozioekonomikoa				
'Maila 'baxua' eta 'ertaina-baxua'	29,3	7,7	34,3	13,4
Maila 'ertaina'	19,9	6,0	25,3	7,1
Maila 'ertaina-altua' eta 'altua'	15,9	9,9	15,1	8,1
Ikasketa-maila				
Big. Hezk. 1. etapa edo beheragokoa	27,9	6,9	25,5	6,0
Big. Hezk. 2. etapa eta Big. ostekoa	20,6	7,1	28,5	7,0
Goi -mailako hezkuntza	17,3	7,7	26,7	14,7

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat. Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta 2017, 2021.

(*) Nafarroa 2000 Zonifikazioaren eransketa aurkeztu da: Iparraldea 'Iparraldea' eta Pirinioak' dira; Iruña, eremu homonimoa; Erdialdea, 'Estellerría' eta 'Nafarroako Erdialdeko Ekialdea', eta Hegoaldea, 'Erribera' eta 'Tudela'.

(**) Hutsik utzi dira ezarritako kalitate-irizpideak betetzeko nahikoa lagin izan ez duten gelaxkak.


³ Hots, osasun mentaleko arretaren beharraren autopertzepzio txikiagoa eta "ongizate orokor txikia" duten pertsonen ehuneko txikiagoak.



Alderantziz, 2021ean adierazle horietan zifrarik txarrenak izan dituztenak emakumeak, maila sozioekonomiko 'baxua' edo 'ertaina-baxua' dutenak, 45-59 urtekoak⁴ eta 10.000 biztanletik gorako udalerrietan edo iruñako eremuan bizi direnak izan dira.

3. GRAFIKOA

Azken urtean osasun mentaleko arreta behar izan dutela adierazi duten pertsonak.
Nafarroa, 2003-2021 (%).



Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat. Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta 2003, 2005, 2007, 2012, 2017, 2020 eta 2021.

2003. urteaz gozotik, nabarmen igo da inkestaren aurreko urtean osasun mentaleko arreta behar izan dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa. 2003. urtean, Nafarroako biztanleen % 3,5ek adierazi zuten osasun mentaleko arreta behar izan zutela aurreko urtean, eta 2021ean, berriz, biztanleen % 9k adierazi dute hori. Igoera hori 2012. urtetik aurrera gertatu zen (urte horretan, serieko zifrarik txikiena erregistratu zen: % 2,2), eta, beste zenbait faktorearen artean, osasun mentalaren garrantzia aldarrikatzeko gizarte-joerak baldintzatu du beharbada.

LAGUNTZA-SAREAK ETA OSASUN MENTALA

Inkestak Nafarroan bizi diren pertsonen laguntza-sareei buruz galdetu du. Hiru alderdiren inguruko galderak egin dira: *“gertatzen zaizunaz kezkatzen diren pertsonak izateko”* aukera,


⁴ Beste adin-talde batzuek baino neurri txikiagoan adierazi dute osasun mentaleko arreta behar izan dutela, baina maizago izan dute “ongizate orokor txikia”.



“eguneroko zenbait arazo motez norbaitekin hitz egiteko” aukera eta “gaixotasunen bat izanez gero laguntza” jasotzeko aukera⁵.

4. GRAFIKOA

“Gertatzen zaienaz kezkatzen diren pertsonak dituzten” pertsonak, sexuaren eta bizileku duten udalerriko biztanleria kopuruaren arabera (2017 eta 2021) (%).



Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat. Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta 2017, 2021.


⁵ Hiru galdera horien tratamenduan, baztertu egin da “Ez daki / Ez du erantzun” erantzun-kategoria bi urteetarako ehunekoak kalkulatzeko. 2017an, hiru galderari emandako erantzun guztien % 17,6 sartzen ziren, batez beste, erantzun-kategoria horretan, eta 2021ean, berriz, % 5,2.



“Gertatzen zaienaz kezkatzen diren pertsonak dituzten” eta “beren arazoez norbaitekin nahi beste aldiz hitz egiteko aukera duten” biztanleen ehunekoa 10 portzentaje-puntu baino gehiagotan murriztu da 2017tik 2021era bitarte, eta erantzunetan pozik ez daudela adierazi dutenak (nahi dutena baino “askoz gutxiago” edo “gutxiago” erantzun dutenak), 5 portzentaje-puntu baino gehiago izan dira. Halaber, oro har gora egin du bitarteko balorazio batekin (“ez asko, ez gutxi”) erantzun duten pertsonen kopuruak, 5 portzentaje-puntutik gorako igoerekin.

5. GRAFIKOA

“Haien arazo ekonomikoez, pertsonalez, lanekoez edo etxekoez norekin hitz egin baduten” pertsonak, sexuaren eta bizileku duten udalerriko biztanleria kopuruaren arabera (2017 eta 2021) (%).



Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat. Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta 2017, 2021.




2021ean, emakumeak gizonak baino pozago daude *“beren arazoez hitz egiteko aukerari”* dagokionez, eta *“haitaz kezkatzen den norbait edukitzeari”* dagokionez; hori erabat pozik daudela diotenen artean islatzen da (*“nahi beste”*).

Udalerriko biztanleriaren tamainari eta bildutako urteei dagokienez (2017 eta 2021), biztanle gutxiko udalerrietan bizi diren pertsonak *“gertatzen zaienaz kezkatzen diren beste pertsona batzuk dituzte”* eta *“badute norekin hitz egin haien arazo ekonomikoez, pertsonalez, lanekoez edo etxekoez”*, gainerakoek baino neurri handiagoan.

6. GRAFIKOA

“Gaixorik daudenean laguntza jasotzen duten” pertsonak, sexuaren eta bizileku duten udalerriko biztanleria kopuruaren arabera (2017 eta 2021) (%)./



Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea, Nastat. Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta 2017, 2021.



‘Gaixorik daudenean jasotzen duten laguntzari’ buruz galdetzean, nahi beste laguntza jasotzen dutela diotenetan 6 portzentaje-puntu egin da behera 2021ean, eta beherakada hori jasotzen duten laguntzarekin gustura ez daudenetan gertatzen da, gehienbat. Nolanahi ere, beherakada beste galderetan baino txikiagoa izan da, eta, gainera, igoera sendoagoa izan da jarrera axolagabea dutenetan (*“ez asko, ez gutxi”*).

Laburbilduz, emakumeak gizonak baino kontentagaitzago daude gaixorik daudenean jasotzen duten laguntzarekin, eta 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren pertsonak gainerako udalerriek baino zifra hobeak dituzte.

Azkenik, esan daiteke emakumeek uste dutela gizonak baino laguntza-sare hobeak dituztela haien arazoez hitz egiteko edo haietaz arduratzen diren pertsonak izateko, baina ez dutela sentitzen gaixotzen direnean nahi duten beste laguntza gizonen neurri berean jasotzen dutenik.

Biztanle kopuruaren arabera, biztanle gutxiko gunetan bizi diren pertsonak (2.000 biztanletik beherako udalerriak) dira alderdi horietan guztietan pozen daudenak.





METODOLOGIARI BURUZKO OHARRA

Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta Nafarroako Gobernuko departamentuek eta gizarte-eragileek adierazten dituzten beharrei erantzuteko tresna da. Hau inkestaren gaiekin zerikusia duten gaiekin aterako diren bost txosteneko lehena da.

Inkestan 15 urte edo gehiagoko 1.467 pertsonak parte hartu dute, eta lagina lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen eta udalerriaren tamainaren arabera estratifikatutako ausazko laginketa baten bidez lortu da.

Gogo-aldarteari buruzko adierazle bat sortu da azken bi astei lotutako bost galderarekin, WHO-5 indizearen eskemari jarraikiz. Metodologia horretan oinarrituta, gogo-aldartea “ongizate orokor txiki” edo “ongizate orokor gogobetegarri” gisa sailkatzen duen atalase bat ezarri da.

Azkenik, datuen bilketa 2021eko azken hiruhilekoan egin da, eta elkarrizketa telefono bidez egin den kasuen kopurua handiagoa izan da web-orriaren bidez erantzundako inkesten kopurua baino (% 60 eta % 40, hurrenez hurren).

Eragiketa mota: jarraitua, urtean behingoa.

Biztanle-eremua: familia-etxebizitzetan bizi diren 15 urteko edo gehiagoko biztanleak.

Eremu geografikoa: Nafarroako Foru Komunitatea

Erreferentzia-aldia: urte bakoitzeko azken hiruhilekoa, galde-sortako galderak beste aldiren bat adierazten duenean izan ezik.

Biltzeko metodoa: telefono bidezko elkarrizketa eta web-orriko galde-sorta.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Gizarte eta Bizi Baldintzen Inkesta. 2021. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00